



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urriaren 7a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroan entzierro txikiak ezartzekoa. Izapidetzeko onartzea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako udaletarako transferentzien funtsean eginiko murrizketak izanen dituen ondorioei buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejonen DBHko bigarren zikloko ikasketak ezar ditzan pixkanaka. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak borondatea eta konpromisoa agertzen ditu bake eta normalizazio politikoko egoera behin betiko lortzeko. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du erkidego osoko bidaiarien garraio publikoaren aldeko konpromisoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du udalei transferitu beharreko funtsetan edozein murrizketa egitea. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan, zama eta baliabide fiskalen birbanaketa handiagoa eta hobea lortzeko bidean aurrera egite aldera. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sozietateen gaineko zergaren itzulketa egin dadin aitorpena aurkeztu eta hiru hilabeteko epean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Osasun Etxea zer egoeratan dagoen informa dezan. Mozioa erretiratzea (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, itxaronzerrendei aurre egiteko aparteko orduen edo gizalanen sistema eteteari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (12. or.).

- Galdera, Arga ibaitik Legardako industrialdera ura eramateko hartuneari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Zilbetin amuarrainak hilik agertzeari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak zenbait ondasun Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren ondorioz abian jarriko diren ekimenei buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Los Arcosko zirkuituaren zorpetzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).
- Galdera, irradi-lizentzien banaketari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (15. or.).
- Galdera, mutilek eskola-arrakastari dagokionez izaten dituzten emaitzen gainean Autonomia Erkidegoen Parte-hartze Batzordeak ateratako ondorioei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (15. or.).
- Galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendeiei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (16. or.).
- Galdera, genetikoki eraldatutako makalekin landa-probak egiteko proiektuari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (17. or.).
- Galdera, Iberdrolaren akzioak maileguen berme gisa erabiltzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako eta Madrilgo ordezkariak eginiko bilerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, geriatriako zerbitzu-ematearen jarraipenari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan entzierro txikiak ezartzekoa.

IZAPIDETZEKO ONARTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Nafarroan entzierro txikiak ezartzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria Juan José Martínez Gilabert jauna baita.

Ikusita Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek izapidetzeari buruz egindako txostena, aipatu Foru

Legearen 5. eta 7. artikuluekin eta Erregelamendua-ren 149.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledu-nen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroan entzierro txikiak ezartzeko Foru Lege proposamena, Juan José Martínez Gilabert jauna ordezkari duen Batzorde Sustatzaile batek egina.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako udaletarako transferentzien funtsean eginiko murrizketak izanen dituen ondorioei buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako udaletarako transferentzien funtsean eginiko murrizketak izanen dituen ondorioei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariari, zeinaren erantzuna Osoko Bilkuran jaso nahi bailuke:

Orain dela egun batzuk jakin genuen Nafarroako Gobernuko lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez ahotik foru exekutiboaren asmoa dela toki entitateei Nafarroako Gobernuaren transferentzia arrunten funtsetik heltzen zaien dirua murriztea. "Nafarroako udalek uste zutena baino % 30 gutxiago jaso lezakete urteko azken hiruhilabetekoan". Hala hitz egin zuen Jiménezek iragan irailaren 14an Parlamentuko batzordean egindako agerraldian, bere departamentuaren ildo estrategikoak azaldu zituen.

Azken hiruhileko honetan transferentzien funtsa % 30 jaitsiko dela iragarri zen. Hori hala baldin

bada, erkidegoko 272 udal eta 348 kontzeju 12,5 milioi euro jaso gabe geldituko dira, nahiz eta gehienek diru hori konprometitu duten, gehienbat gastu arruntetarako.

Nafarroako ehunka herrik Foru Administrazioetik heltzekoak diren kontusail horiek behar dituzte udal batek bere eguneroko funtzionamenduari begira funtsezkoa duena finantzatzeko: plantillakoen lansariatatik hasi eta, besteak beste, argiteria, berokuntza edo telefonoraino.

Entitate horietako askorentzat, funtsen murrizketak ekarriko du zailtasun ugari izatea urta amaiera honetan aurre egiteko alde aurretik konprometuta dauden ordainketei, eta horrek likidezia falta ekarriko lieke zenbait udali, bai eta mailegurik ezin jaso izatea ere, zorpetze-ahalmen handiagoa ez izateagatik.

Egoerak, hortaz, ezinegona eragiten du Nafarroako herri askotan. Gehienek beste nonbait bilatu beharko dute dirua gastu arruntei aurre egiteko, eta, gutxi batzuek, gelditzen zaizkien aurrezki apurrak baliatu beharko dituzte. Udalak eta kontzejuak zain daude egunotan, ea zer erabaki hartzen duen azkenean foru exekutiboak irailaren 28ko –asteazkena– gobernu-bilkuran, neurri hori orduan bete baliteke.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra Nafarroako Gobernuko lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariari jabeldu nahi zaio, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran azal dezan bere ustez zer ondorio helduko diren Nafarroako udalei dagozkien transferentzien funtsa murrizteko erabakitik. Eta orobat azal dezan zer neurri osagarri hartuko dituen erabaki hori konpentsatzeko eta toki entitateei eragindako kaltea arintzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Castejonen DBHko bigarren zikloko ikasketak ezar ditzan pixkanaka.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Castejonen DBHko bigarren zikloko ikasketak ezar ditzan pixkanaka.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko fou parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

1989ko urtarrilean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Nafarroako Zuzendaritzak, "Ikastetxeen Sarea-Hezkuntza Planifikazioa Nafarroan Irakaskuntzen Erreformari Begira" azterlanean, Castejonerako derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxe bat jartzea erabaki zuen, Castejón, Cadreita, Arguedas eta Valtierra biztanleei zerbitzua ematearren. Ikastetxe hori, halere, ez zen eskola-mapan sartu.

1997ko ekainean, Hezkuntza Departamentuak behin-behineko baimendu zituen Castejonen bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasketak, herriko familiek eta, oro har, hezkuntza-erkidegoak behin eta berriro hala eskatuta.

1999/2000 ikasturtean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak derrigorrezko bigarren hezkuntzako 1. maila kendu zuen –35 ikasleek Tuterara joan behar dute harrezkero– eta 2. maila soilik geratzen da.

Castejongo Udalak ere ikusi zuen beharrezkoa zela herriarentzat hain garrantzitsua den auzi hori konpontzea, eta halatan, 2000ko ekainaren 23an

egindako osoko bilkuran aho batez onetsi zen derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasleei emandako hezkuntza zerbitzua mantentzeko eta zerbitzu hori aurrerago bigarren ziklora zabaltzeko erabakia. Erabaki horretan jasotako eskakizunak Nafarroako Parlamentura heldu ziren Eskola Kontseiluko ordezkariak eta herriko alkateak Hezkuntza eta Kultura Batzordean ekainaren 2an egindako agerraldian.

Nafarroako Parlamentuak Castejongo hezkuntza zerbitzuari buruz 2000ko ekainaren 30ean hartutako erabakia betez, maiatzaren 24ko 12/2001 Foru Legeak, bere artikuluko bakarraren bidez, xedatu zuen Nafarroako Gobernuak derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloari dagozkion hezkuntza zerbitzuak ezarriko zituela Castejónen, bertako herritarrek eskatzen duten eskolatzeari erantzuteko.

Foru lege horretako lehen xedapen iragankorak orobat xedatu zuen derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren zikloa pixkanaka ezarri eta ikasleen hezkuntza zerbitzua handitu ahalko zuela Nafarroako Gobernuak, herrian aurreikusitako den industria garapenari begira.

Hona Castejongo herriaren egungo egoera:

1. Castejongo biztanle-kopurua 1999an 3.149koa izatetik 2010ean 4.306koa izatera igaro da. Hortaz, argi dago eskola-adineko populazioa nabarmen igo dela. Izan ere, "2 de Mayo" ikastetxe publikoko matrikula, urtebete eta apur bat gehiagoko epean, 2010eko martxoan 476 ikaslekoa izatetik 2011-2012 ikasturtearen hasieran 554 ikaslekoa izatera igaro da (DBHko lehen zikloko ikasleak ere kontuan hartuta). Haur hezkuntzako hirugarren mailak (5 urte) eta lehen hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak, hiruna lerro dituzte.

2. Hezkuntza erkidegoak oso positibotzat jotzen du herrian urteetan eman den derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloaren kalitatea. Haien ustez, ikastetxea bizilekutik gertu egoteak erraztu egiten du familiaren eta ikastetxearen nahiz irakasleen arteko harremana, eta seme-alaben hezkuntza-prozesuan modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen die. Familiek orobat uste dute Tuterara errepidez joan behar diren arriskua ekidin daitekeela.

3. Argi dago industria garapena handia izan dela. Horren adibide dira, langile kopuruari dagoki-

onez, paratu diren ziklo konbinatuko bi zentral termikoek 100 langile baino gehiagori lan ematen dietela, eta Tranas enpresak 150 langile inguru dituela une honetan. Herrian zenbait enpresa txiki eta ertain ere paratu dira, eta lehen aipatutako industria garapena, hortaz, nahiko handia izan da.

4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasketak Nafarroako Gobernuak alokatutako eraikin pribatu batean, "Sagrados Corazones" ikastetxean, egiten dira. Eraikin horretako instalazioak egoera txarrean daude. Gelak narriatuta daude, eta zenbait instalazioren narriadura, esate baterako gimnasioarena, hain da handia ezen ezin baitira erabili.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejonen arian-arian ezar daitezen, maiatzaren 24ko 12/2001 Foru Legearen babesean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko ikasketak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasketa horiek kalitate-irizpideekin bat eman ahal izateko behar diren gelak eta instalazioak dituen eraikin publiko bat egokitu edo egin dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak borondatea eta konpromisoa agertzen ditu bake eta normalizazio politikoko egoera behin betiko lortzeko.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak borondatea eta konpromisoa agertzen baititu bake eta normalizazio politikoko egoera behin betiko lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, zeina 2011ko irailaren 22an eztabaidatutako jabelduratik heldu baita, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuaren lehendabiziko Osoko Bilkura arruntean, gai zerrendako hirugarren puntuan, parlamentu-talde honek Gobernuari eginiko jabeldura bat eztabaidatu zen, jakiteko zer jarrera duen behin betiko bake egoera, politikoki normalizatua, lortzeko aukerei dagokienez.

Hori dela eta, eztabaida haren ondorioz, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak bere lan konpromisoa eta borondatea adierazten ditu, gure herriarentzako normalizazio politikoa eta bakea behin betikoz lortzeko, eta Nafarroako Gobernuko lehendakaria premiatzen du konponbide-prozesuan modu aktibo eta positiboan jardun dezan.

Eledunak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du erkidego osoko bidaiarien garraio publikoaren aldeko konpromisoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu erkidego osoko bidaiarien garraio publikoaren aldeko konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, bidaiarien garraio publikoaren aldeko apustua dela eta.

Nafarroako Parlamentuan eta udaletan gehien-goia beti egon da bidaiarien garraio publikoaren aldeko politikaren alde eta garraio publikoa garatu eta areagotzearen alde.

Herri Lan, Garraio eta Etxebizitzako kontseilari Astiz jaunak Legebiltzar honetan 2011ko irailaren 21ean egindako agerraldian iragarri zuen arriskuan daudela, baliabiderik ez dagoelako, eskualdeko hiri garraioari eta erkidegoko gainontzekoari ematen zaizkion laguntzak, Nafarroako aurrekontuen bidez emandakoak.

Murrizketa hori gertatuko balitz, garraioa areagotzeko akordioak eta konpromisoak urratzeaz gain arrisku bizian jarriko litzateke bidaiarien garraio publikoaren egungo maila.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du bidaiarien garraio publikoaren alde duen konpromisoa, hala Iruñerriko hiri garraioaren nola erkidegoko gainontzeko garraioaren aldekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan inolako erabakirik har, ez aurrekontu arloan ez beste edozein arlotan ere, baldin eta horrek egungo garraio publikoaren mailan atzera egitea badakar.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki iritzitako behar adina ekimen aurkez dezan, eskualdeko garraio publikoa eta erkidegoko gainontzekoa garatu eta areagotze aldera.

Iruñean, 2011ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiazen du udalei transferitu beharreko funtsetan edozein murrizketa egitea.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiazen baitu udalei transferitu beharreko funtsetan edozein murrizketa egitea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Txema Mauleón Echeverría, Izquierda-Ezkerre parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Gobernuak egin dituen aurrekontu-murrizketen artean oso adierazgarria egiten zaigu udalantzako transferentzia arruntan funtsean egindako murrizketa. Funtzak 11,7 milioi euroko murrizketa izan du, urteko azken lauhilekoan udalek jaso beharreko zenbatekotik.

Udalen finantzaketa arrunteko murrizketa horri gehitu behar zaio udalei transferitu beharreko funtsetan beste murrizketa garrantzitsu batzuk egin direla, hala nola Iruñeko Hiriburutza Agiria, oinarritzko gizarte zerbitzuetarako diru-laguntzak eta abar.

Udalen diru-sarrerak murriztuta, egoera oso larria da, eta auzitan jartzen du udal askoren eguneroko jardunari aurre egiteko ahalmena eta udal horien oinarritzko zerbitzuak.

Gogorarazi beharra dago udalek defizita izan dutela historian zehar toki ogasunen banaketari

dagokionez, udalek Nafarroako tributuetan duten partaidetzaren ehunekoa jaitsi egin baita azken urteotan. Egoera horren ondorioz, zeinari gehitu behar baitzaio Estatuak kreditu berriak lortzeko aukera itxi duela, udalek ia ez dute maniobra ekonomikorako marjinik.

Gure ustez, udalek ez dute zertan ordaindu lehengo Nafarroako Gobernuaren kudeaketa txarra, ezta oraingoak egin nahi duena ere. Foru eta udal hauteskundearen aurretik egoera ekonomiko erreala ezkutatu baldin bada, izandako diru-sarreak ez baldin badira aurreikusitakora iritsi eta Estatuak ezarritako kontabilitate-sistema ez erabiltzeagatik aurreikusitakoa baino defizit handiagoa baldin badaukagu, Nafarroako Gobernuak da horren arduradun bakar-bakarra. Eta bere gain hartu behar du ardura hori, beste erakunde batzuen lepo utzi gabe, esaterako udalen lepo, udalek bere aurrekontu-arazoei egin behar baitiete aurre.

Logikoaenez, legeak aurreikusitako transferentzia arruntan arabera egin dituzte udalek 2011ko beren aurrekontuak. Urtea bukatu baino hilabete batzuk lehenago gisa horretako murrizketa bat onetsi izana kolpe latza da toki autonomiarentzat, eta horrez gain, segurtasun-gabezia juridikoa dakarkie udalei, eta, garrantzitsuagoa dena, bidera ezina egiten du hartutako aurrekontu-konpromisoak betetzea –horietako askori dagokionez, konpromisoa irmoa da eta ez dago konpromisoa deuseztatzeko aukerarik–, bai eta herritarrei ematen zaizkien oinarritzko zerbitzuen bermea ere.

Hori dela-eta, ondoko erabakiak hartzea proposatzen diogu Osoko Bilkurari:

1. Nafarroako Gobernuak udalei 2011n transferitu beharreko funtsetan ezein murrizketa egitearen aurka azaltzea.

2. Nafarroako Parlamentuak bere borondatea azaltzea, udalekin 2012rako eta hurrengoetarako finantzaketa egokia hitzartzekoa.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan, zama eta baliabide fiskalen birbanaketa handiagoa eta hobe lortzeko bidean aurrera egite aldera.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan, zama eta baliabide fiskalen birbanaketa handiagoa eta hobe lortzeko bidean aurrera egite aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Eredu fiskal zuzenago eta egokiago bat zehazteko erabakiak hartu behar diren aitzinean, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekitatearen, gehikortasunaren eta efizientziaren helburuak lortzen aurrera egiteko neurri-sorta bat ezar dezan, zergadunen artean zama eta baliabide fiskalak hobeki banatu ahal izateko, ondoko jarduketa-ildoak oinarri:

- Iruzur fiskalaren aurkako plana, besteak beste jasoko duena iruzur-poltsak prebenitzeko eta detektatzeko plan bat.

- Itzurpen fiskalaren aurkako neurriak, ingeniari fiskaleko diseinuak egitea ekiditen duten tributu-arauak zuzenduta.

- Aberastasunaren zerga-ordainketan aurrera bidea egiteko neurriak; ondasunaren gaineko zerga berria, oinordetzaren gaineko zerga-ordainketa igotzea, ondare eskualdaketen gaineko zergen tasa orokorraren igoera eta egintza juridiko dokumentatuen tasa orokorra aztertzea.

- PFEZaren tratamenduak zuzentzeko neurriak, kapital-errenten zerga-ordainketa areagotuz, eskala-tarteen kopurua igotzea eta etxebizitza erosteagatiko kenkariak kentzea errentarik altuen kasuan.

- Sozietateen gaineko Zergaren erreforma eta zenbait kenkariren eraginkortasuna berrikustea.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jasok

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sozietateen gaineko zergaren itzulketa egin dadin aitortpena aurkeztu eta hiru hilabeteko epean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sozietateen gaineko zergaren itzulketa egin dadin aitortpena aurkeztu eta hiru hilabeteko epean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

2011ko irailaren 28an egindako agerraldian, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak informatu zuenez, 2012ko urtarrilean ordainduko dira Sozietateen gaineko Zergako 2010eko ekitaldiko itzulketak, zeina 2011ko uztailean aurkeztu baita. Miranda jaunak ez zigun adierazi zein den 2012ko urtarrilean itzuli beharko den dirukopurua. Badakigu, ordea, 2011n 23 milioi baino gehiago itzuli direla, 2010eko uztailean aurkeztuta-

ko 2009ko zergari dagozkionak, legeak ezartzen duen gehieneko epea baliatuta.

Finantzaketa lortzea zail-zaila den une honetan, epe hori laburtzeak erraztu egingen luke enpresen zirkulatzaila; alegia, hor leutzake aldea, zenbait kasutan, diruzaintzako zailtasun bat gainditu ahal izatearen eta gainditu ezin izatearen artean eta, horrenbestez, zenbait lanpostu mantentzearen eta ez mantentzearen artean.

Halatan, oso egokia izanzen litzateke 2010eko Sozietateen gaineko Zerga itzultzeko epea aurreeratzea, halako moduan non 2012an egin ordez 2011 bukatu aitzin egingen bailitzateke. Halere, jabetzen gara bateraezinak direla neurri hori eta UPN-PSN gobernuak erabateko lehenetasuna duen helburu gisa ezarri duen defizit-helburua, eta neurri bikaina irudituko litzaigukeen arren, badakigu neurri horrek porrot egingen lukeela.

Gure ustez, ordea, bideragarria da konpromiso bat lortzea 2011ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren itzulketei dagokienez, heldu den 2012ko uztailean aurkeztuko baitira.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sozietateen gaineko Zergaren itzulketa hiru hilabeteko epean egin dezan gehienez ere, aitortpena egiteko mugaegunetik aitzina zenbatuta, 2012an aurkeztu beharreko 2011ko ekitaldiko aitortpenetik hasita.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Osasun Etxea zer egoeratan dagoen informa dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2011ko urriaren 4an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren ganean dagoela Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Osasun Etxea zer egoeratan dagoen informa dezan.

Mozio hori 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, itxaronzerrendei aurre egiteko aparteko orduen edo gizalanen sistema eteteari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, itxaronzerrendei aurre egiteko aparteko orduen edo gizalanen sistema eteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko Bakartxo Ruiz Jaso foru parlamentari andreak, Legebiltza-

reko Erregelamenduak xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, zehazten den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Osasun Departamentuak iragarri du itxaronzerrendak arintzeko helburua zuen "peonada" sistema bertan behera utziko duela, ez delako helburu hori betetzeko eraginkorra izan. Horren ordez, "intzentibo" sistema berri bat ezarriko omen du.

Galdera:

Itxaronzerrendak arintzeko planteatzen den neurri honen eraginkortasunari dagokionez, zerrenda horiek espezialitate eta arlo bakoitzean zein neurritan arinduko dituela espero duzue?

Iruñean, 2011ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Arga ibaitik Legardako industrialdera ura eramateko hartuneari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Arga ibaitik Legardako industrialdera ura eramateko hartuneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervásek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, onodko galdera egin du, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Arga ibaitik Legardako industrialdera ura eramateko hartunerik egiten ari al da edo egiteko asmoa al dago?

Iruñean, 2005eko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Zilbetin amuarrainak hilik agertzeari buruzkoa.*TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Zilbetin amuarrainak hilik agertzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervásek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zilbetin amuarrainak hilik agertzeari buruzkoa.

Zilbetiko udal mugapeko erreka toetan behin eta berriro agertu da hilik amuarrain-kopuru handi bat.

Zein izan da heriotza horien jatorria? Zer neurri hartu ditu departamentuak?

Iruñean, 2011ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Eliza Katolikoak zenbait ondasun Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren ondorioz abian jarriko diren ekimenei buruzkoa.*VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Eliza Katolikoak zenbait ondasun Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren ondorioz abian jarriko diren ekimenei buruzkoa.

naren ondorioz abian jarriko diren ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Alvaro Miranda Simavilla jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eliza Katolikoak, bere elizbarrutiaren bitartez, Jabetzaren Erregistroan 1.087 ondasun immatri-

kulatu dituela jakin ostean, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa du Nafarroako herri eta kontzejuen ondareari betebetean eraso egiten dioten jokabide horiek direla-eta?

Iruñean, 2011ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Los Arcosko zirkuituaren zorpetzeari buruzkoa.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Los Arcosko zirkuituaren zorpetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Diario de Navarrak orain dela gutxi argitaratu du Los Arcosko zirkuituaren jabe den sozietate publikoak (% 95 Nafarroako Gobernuarena da) milioi bat euro baino zertxobait gehiagoko negozio-bolumena izan zuela 2010ean eta 2 milioi euro baino gehiagoko galerak izan zituela epe berean. Haren zorrari buruzko datuak ere eman zituen.

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen egiten ditu, negozio-bolumenari eta emaitzei dagokienez, 2011-2014 eperako? Gobernuaren ustez, sozietate horrek bere zorrari aurre egiteko ahalmenik ba al du?

Iruñean, 2011ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, irрати-lizentzien banaketari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, irрати-lizentzien banaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nekane Perez Irazabal, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Batzordean.

Aurreko egunean Kontseilaria mintzatu zen irрати lizentzien banaketaz. Horren ildotik eta gaia argitu nahian zenbait galdera egin nahi dugu:

1. Ikusita Iruñean dagoen eskaintza oso murrizta dela, bi lizentzia, besterik ez. Zergatik ez dute gestiorik egin Madrilan baimen gehiago eskuratu eta banatu ahal izateko?

2. Nolako irizpiderekin prestatuko dute baremoa irрати lizentzien banaketarako?

3. Irрати lizentzien banaketan, baremoa edozein delarik ere, nola bermatuko du Gobernuak aurreko baimen banaketetan eman diren irregulartasunak ez direla errepikatuko?

Iruñean, 2011ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Nekane Perez Irazabal

Galdera, mutilek eskola-arrakastari dagokionez izaten dituzten emaitzen gainean Autonomia Erkidegoen Parte-hartze Batzordeak ateratako ondorioei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, mutilek eskola-arrakastari dagokionez izaten dituzten emaitzen gainean Autonomia Erkidegoen Parte-hartze Batzordeak ateratako ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

“Las cifras educativas en España, MEC 2010” izenekoan ageri diren datuak ikusita eta datu horiei dagokienez Autonomia-partaidetzako Batzordeak ateratako ondorioak ikusita (autonomietako eta Estatuko eskola kontseiluetako lehendakariak osatzen dute batzorde hori), ondokoa jakin nahi dut:

Hezkuntza Departamentua bat al dator Autonomia-partaidetzako Batzordeak mutikoen emai-

tzei buruz ateratako ondorioekin? Hezkuntza Departamentuak neurriren bat aurreikusi al du egiaztatzeko ea Nafarroan alde hori ematen den? Departamentuaren ustez neurriren bat ezarri

behar al da mutikoen eskola-arrakasta hobetzeko? Zer neurri-mota ezarri behar da?

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendua xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuari

honako galderak helarazten dizkio, idatziz erantzun ditzan:

1. Zertan gauzatuko da zehazki osasun zerbitzuetako itxaronzerrendak arintzeko planteatzen den "intzentibo" sistema berria?

a. Zein eredurri jarraituko dio?

b. Noiz ezarriko da?

2. Osasun arloko eragileekin (sindikatuak, profesionalak...) adostutako sistema (izango) al da?

3. Zer irizpide erabiliko da sistema horretan parte hartuko duten profesionalak hautatzeko?

a. Informazio hori nola emango da aditzera?

4. Zenbateko gastua izango du? Aurrekontuaren zein partidari egokituko zaio?

5. Aurreko "peonada" sistemarekiko aurrezpen ekonomikorik izango du? Horren aurreikuspena eskatzen dugu.

Iruñean, 2011ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, genetikoki eraldatutako makalekin landa-probak egiteko proiektuari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, genetikoki eraldatutako makalekin landa-probak egiteko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

2011ko ekainaren 14ko 115. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 926/2011 Ebazpena, ekainaren 3koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, genetikoki aldatutako organismoekin eginen den B/ES/11/26 jarduerarako eskaera jendaurrean jartzen duena.

Merkaturatzea ez beste helburu batzuekin, genetikoki aldatutako makalekin (pópulus) egindako landa-saiakuntza borondatez askatzeko jarduerarako onespina eskatzen da, ekoiztutako biomasa handitzeko helburuarekin. Landa-saiakuntza hori Malagako Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Innovación Inver, SLk sustatu dute.

Genetikoki aldatutako organismoen erabilera konfinatuaren, borondatezko askatzearen eta merkaturatzearen araubide juridikoa ezartzen duen apirilaren 25eko 9/2003 Legea Garatu eta Gauzatzeko Erregelamendu Orokorreko 22. artikulua arabera, borondatezko askatzea da ingurumenean nahita sartzeko genetikoki eraldatutako organismo bat edo organismo-konbinazio bat, berariazko konfinamendu-neurririk hartu gabe hain zuzen ere, zertarako eta populazioarekiko eta ingurumenarekiko kontaktua mugatzeko eta horiei segurtasun-maila handia emateko.

Landa-saiakuntzako proiektu hori ikusita, ondokoa jakin nahi dugu:

Makal-plantazioak zer azalera hartuko du?

Zer erabilera emanen zaio gero saiakuntzari?

Proiektua zer diru-laguntza ari da jasotzen?

Iruñean, 2011ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Iberdrolaren akzioak maileguen berme gisa erabiltzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Iberdrolaren akzioak maileguen berme gisa erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuako Ekonomiako kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak 2011ko irailaren 28ko bilkuran adierazi zuen "Sodenaren jabetzako Iberdrolaren akzioak enpresak eskatzen dituen maileguen berme gisa erabiltzen direla".

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Murriztutako funtsen zer zenbateko bermatzen dute akzio horiek?

- Zer ekimen abiarazi ditu Sodenak mailegu horiei dagokienez? Horiei buruzko xehetasun guztiak jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako eta Madrilgo ordezkariak eginiko bilerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako eta Madrilgo ordezkariak eginiko bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuako Ekonomiako kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak baieztatu zuen, 2011ko irailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroaren eta Madrilgo ordezkariak 2011ko uztailaren 27ko bileraz geroztik egin duten aldebiko bilera bakarra "orain dela hamar egun" egin zela.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Nork parte hartu zuen bilera horretan ordezkariak bakoitzaren aldetik? Zehaztu bileraren eguna eta tokia.

- Zein izan zen bilera hartako gai zerrenda?

- Zer akordio lortu ziren?

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, geriatriako zerbitzu-ematearen jarraipenari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, geriatriako zerbitzu-ematearen jarraipenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaiola:

Zure departamentuak noizko aurreikusten du ospitaleguneko Geriatria Zerbitzua berrabiaraztea?

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

